

E-CHO proiektua: alferrikakoa eta suntsitzailea.

Lacq-eko arroan, proiektu honek ekoiztu nahi ditu:

72.000 tona hidrogeno
200.000 tona E-metanol
75.000 tona biokeroseno
35.000 tona bio-nafta

Aurreikusitako inbertsioak hauek dira:

400 milioi euro eM-Lacq lantegirako
600 milioi euro HyLacq lantegirako
1.000 milioi euro BioTjet lantegirako

Beharrezkoak diren baliabideak:

Elektrizitatea: 520 MW
Biomasa: 300.000 tona
Ura: 7,7 milioi m³

Proiektu honek Mediterraneo ingurutik Ozeano Atlantikora eragina izango du bai eta Lacq-etik 400 km iparraldera ere.

Ondoko elkarteak proiektu horren kontra dira eta petizio baten izenpetzera deitzen dute:

https://www.petitionenligne.net/usine_e-cho_non_merci

Proiektu horren kontrako lehen elkarte eta sindikatuak Euskal Herrian eta Landetako hegoaldean:

Landetako Hegoaldeko Ingurumenaren Aldeko Elkarten kolektiboa, Nivelle-Bidassoa Urrugne, Su Aski Elkarte, Landetako Lurraren Lagunak, Ustaritze Ingurumenaren Defentsa, Attac Pays Basque, NON LGV Nord Landes et Marsan, Aiherra Bizirik, BIZI, Benesse Environnement, Lurzaindia, Bassussarry Notre Environnement, Uramap Kolektiboa, Ostia Sarea, Sépanso Pays Basque, ELB Sindikatua, Mouguerre Cadre de Vie, Groupe National de Surveillance des Arbres Capbreton, Collective Barthes-Tarnos, l'Etincelle2.0 Baiona

Izena emateko izena eman lettrecade@gmail.com helbidean.

Proiektuaren aurka egiteko arrazoi on batzuk:

Elektrizitatea:

Elektrolisaren bidezko hidrogeno ekoizpenak **520MW** beharko ditu da, hau da, **Golfech-eko zentral nuklearraren ekoizpenaren % 20.**

Bero-ahalmenaren terminoetan, ekoizpen-urte batean, 520MW hauek dira:

$1,6 \times 10 \exp 10$ Megajoules

Urtebetean lantegian ekoiztuko diren erregai ezberdinek ukanen duten bero-ahalmena:

- Biokerosenoa: $3.2 \times 10 \exp 9$ MJ

- Bio-nafta: $1.5 \times 10 \exp 9$ MJ

- E-metanola: $4 \times 10 \exp 9$ MJ

Guztira: **$8,7 \times 10 \exp 9$ Megajoules**

Hau da, E-CHOk sortuko duena baino 1,8 aldiz energia gehiago xahutuko du !

Eta hori kontuan hartu gabe biomasa birrintzeko eta lehortzeko, industria aparatuaren funtzionamendurako edo produktuen garraiorako behar den energia...

Ikuspegi energetiko hutsetik, proiektu hau ezinbesteko soiltasunaren kontra doa!

Biomasa:

Hiru biomasa mota behar dira:

Baso biomasa

Biomasa sekundarioa

Laborantza biomasa

Biomasa hori birrintu, lehortu, txigortu eta gasifikatuko da.

Baso biomasa:

Itsas pinu, haritza, pago, izaia, eta besteren mozketak dira.

400 km-ko erradioan, Akitania Berrian eta Okzitanian mozketak egiteko asmoa da.

Eskualde horietan **77500 ha inguru mozten dira jadanik urtero.**

Proiektuak iragartzen du moztu nahi dituela:

1180ha 2027an

2600ha 2028an

2700ha 2029an

2400ha 2030ean

1320ha 2031n
1180ha 2032an
1040ha hurrengo urteetan.

2032rako, 11380 ha desagertuak izanen dira eta hurrengo urte bakoitzean 1040ha desagertuko dira Akitania Berrian eta Okzitania.

Batez beste, lehen 6 urteetan, Akitania Berriko eta Okzitaniako mozketak % 24,3 igoko dira.

Gure lurralde, paisai eta biodibertsitateari eragingo dien alimaleko kentzea da!

Biomasa sekundarioa:

Biomasa sekundarioa zerrautsez, panelen hondarrez, eraiste egurrez eta abarrez osatua da.

Hondakin horiek gehienak jadanik industri adarrean baliatuak dira. Beraz, proiektuaren gauzatzeak lehia bat piztuko du eta beraz, prezioen gorakada bat.

Hondakin horiek hein handi batean barreiatuak dira eskualdean, biltzeko kamioi anitz beharko dira, lekualdaketak, manipulazioa, bereizketak, etab... Horrek ere kosta prezioa emendatuko du.

Kostua emendatzen bada, errentagarritasuna hobetzeko tentazio handia izanen da baso biomasa gehiago baliatzea eta horren ustiaketa emendatzea.

Hauk dira biomasa sekundarioarentzat aurreikusitako tonak; lehen urteek erakusten dute bilketa zirkuitu baten iraunarazteko zailtasuna:

2027:0 t
2028: 50.000 t
2029:100 000t
2030:100 000t
2031: 130.000 t
2032: 170.000 t

Hurrengo urteak 200.000 t

Uste dugu biomasa sekundarioa biltzeko zailtasunak eta kostuak zuhaitz gehiago moztea eragingo duela.

Laborantza biomasa:

Txostenak zehazten du mahastien oinak direla, hezurak, fruitu arbolak, hiriko inausketak, trabak,...
Baina biomasa hau jadanik erabilia da:

Hondakindegietako birrintzeak, konpostajeak, barreiatzeak, beren zirkuituak dituzte jadanik; ECHO proiektutik datorren lehiak ere prezioak emenda ditzake.

Are okerrago ere, Britainiako metanizazioarekin ikusi ahal izan den bezala, laborantza hondakinen merkatua sustatuko da, laborari batzuei erakargarri irudituko zaiena.

Biomasarako laborantza, biomasarako arto soroak agertuko dira hemen! Alemanian artoa lantzen duten baserriek errekontzara bideratzen dute beren ekoizpena, osorik edo zati batean. Arriskua da laborantza lurra elikaduraz bestalde erabiltzea. Hesien desagertzea azkartuko da, haien birlandatzea gomendatzen den momentuan.

Eta kabalek ekoizturiko biomasa?

Gaia lausoa gelditzen da proiektu honetan, baina arazoak izan daitezke, txerritegi hondakinak erabilgarriak baldin badira eta ECHO proiektuak erosten baditu. Zer bilakatuko da laborantza iraunkorraren gomendioa : gure etxalde ttipietan 50 txerri baino gehiago ez izatea ? Hondakin gehiago saltzeko, txerri kopurua emendatu beharko ote da ?

Uste dugu biomasa bilketa horrek hazkurri laborantza hunkituko duela.

Ura:

7,7 milioi m³ erabiliko dira urtero eta soilik 3,9 milioi gibelera botako dira.

Erraiten digute araudia beteko dela. Baina ur isuriaren egoeraz kezkatzen ahal gara (tenperatura, kalitatea, etab.).

Lacq-eko gasaren gunearen ustiapena bukatu denetik, uraren gaineko presio industrialak apaldu da, dudarik gabe, baina 2021ean 14,3 milioi m³-koa zen, eta horietatik 11,76 errekararen gainean, ECHO txostenaren arabera.

Beraz, proiektu horrek Lacq-en plataformak errekarari kentzen dionaren % 65,47ko emendatze bat eragingen du !

Eta hori guztia...

Hori guztia hegazkinentzako 75.000 tona keroseno ekoizteko. Frantziako hegazkin-kontsumoaren % 1 baizik ez da.

Hegalaldien % 1 baino gehixeago ezabatuko bagenu, hau egin genezake:

2 miliar euro aurrezteko beste sektore batzuetan baliagarriagoak.

520 MW argindar aurrezteko

7,7 milioi m³ ur errekan uztea.

Ehunka mila hektarea baso zaintzea

Inguru guzti hauetako biodibertsitatea babestea.